

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

ASMOA ETA HELBURUAK

Bilbo, 1982-VII-30

*Juan San Martin
Jagon Sailburua*

Euskaltzainkide, idazle eta entzule guztioi, agur:

Gizarte zibilizatu batean, literatur ekintzak bultzatzen ez dituen herriaren hizkuntzak, eztu etorkizunik.

Gure herri hau, beraren nortasunez, besteengandik gehien bereizten duena, hizkuntza da. Euskarak eman bai zion Euskal Herri izena. Horregatik, berezkoa du gure herriak, nortasunaren iraupenez, bere hizkuntzari begiratu beharra.

Hizkuntza bakoitzak bere premia bereziak ditu, beraren izateak mugatzen dituen premiak eta horiek inork ez ditu bideratuko euskaldunok izan ezik.

Literaturgintzaren aurrerabidea, inondik etortzekotan ere, euskaldun idazle edo egileak behar bezala laguntzetik letorke. Baina, horiek ez dute ezer ganorazkorik lortuko beren artean bildu eta behar bezalako antolakizunak eta plangintzak burutzen ez badituzte.

Asmo hori dator Euskal Idazleen Elkartearen baitan. Lehen lehenik, 1968an sortu zen Elkartea eratzeke asmoa, Gerediaga Elkarreak, Ermuan euskal idazleen jardunaldiak antolatzean (1). Eta, haren ondorenez, 1969.eko Irailean, Baionan, barne-arautegi bat ere egin zen. Baina garai haietan ez zegoen aurrera egiterik. Urte nekezak ziren haiek honelako asmo bat aurrera eraman ahal izateko. Azken ahaleginak, Euskaltzaindiaren babespean, 1979.ekoak dira, nortasun juridikoaren eskaria eginenez; baina, arautegiaren puntu batzurengatik ez zen onartua izan.

Euskaltzaindia aipatu dudanez, argi utzi dezadan, aspaldidanik datorrela euskara hizkuntza normalizapenaren bideetara eramateko, horretarako behar diren bideak aukeratuz, 1979.eko Abuztuaren 28tik 30era bitartean Foruan egin ziren jardunaldien arabera (2). Hain beharrezko diren azpiegiturak sortu eta beraren bidean jartzeaz.

Euskarak gaur egun duen prolemarik larrienetako bat sorketazko literaturgintza da eta ahalik eta soluziorik egokiena eman nahi genioke arazo honi. Urte honen hasieran asmo hura indarberritu genuen. Horretarako, idazleei dei egin genien Otsai-

(1) Ikus *Jakin* aldizkaria, 31-32 zenb., 1968, 73. orrialdean.

(2) Ikus *Euskera*, XXIV, 1979, 825-830 orr. (bereziki, 822 orr.).

laren 25ean, Gipuzkoako Diputazioan bilera egiteko. Batzorde probizional bat izendatu zen Euskal Idazleen Elkartearen lanak eta helburuak finkatzeko, arautegia berritzeko eta egileen mutualitateaz informatzeko. Eginkizun horiek burutzean berriz bilera bat egiteko. Beraz, horren ondorena dau gaurko hau. Eta batzordeko idazkari izendatu zen J. M. Velez de Mendizabalek emango dizkigu xehetasunak. Ondorean, Elkartearen nortasun eskubide eskariak egiteko. Eta, nortasun juridiko hori lortzen duen une beretik utziko du Euskaltzaindiaren babes beraren bidea jarrai dezan.

Bide berriak urratzea, idazle berriei leku ematea, bizitzaren legeak ez ezik kulturalak berak eskatzen diguna da. Holako elkarte batean edozein idazlek bere lekua izan dezala, ezker naiz eskubi, euskara batukoek naiz bestelakoek. Hots!: Euskal Idazleen Elkartea, soil soilik, elkarte kolegal erara sortzen da; beronen eginkizuna, egileen interesak defenditzeko denez gero.

Egilea nola promozionatu eta beronen alde laguntzak nola lortu. Hein batean, hori izango da beraren egitekoa.

Liburuari dagokionez, kontratuak nola egin, eskubideak gordetzeko. Legearen arabera, salmentetatik ehunetik hamarrekoa egileari gordetzea, aldizkariak eta egunkariak ohi den bezala ordaintzea. Eskubide horiek inori parkatzeotan, kultur aldizkariari barkatu beharko zaie, komertzialak ez direnean. Hala ere, euskal idazleak badu nahiko zama bere hizkuntza hain tipia izatearekin.

Hain zuzen, hizkuntza tipiaren egoerak berak behartzen du idazlea elkartasunera, egileen alderako ekintzak eta langintzak bateratuz eskubideak lortzeko.

Bestalde, argi geldi bedi, Estatu mailako legeztapena izango duela, euskarazko idazlea ahalik zabalen hartzearen. Nortasun juridiko horren eskariaren berri emango zaie lau Diputazioei eta Eusko Jaurlaritzari. Beste estaturen baten barnean euskal idazleentzako elkarerik sortuko balitz, harekingo harremak ongi letorzkio, baina baita ere erdaretako idazle elkarteekin, bereziki beren nortasuna duen estatukoekin, legeen arabera antzerako arazoak izango dituztenez. Dena dela, elkartekideak edo beronen zuzendaritzak hartu beharko ditu era horretako erabakiak, non nola jokatu behar duen jakinez.

Beste gabe, euskal idazleok ere, gogoan har: txikiak handia bentzi ledi, asmoz eta jakitez. Beraz, aurrera begira, *Ekin eta Jarrai*.